

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko maiatzaren 19a. VIII. urtea. 2.228. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Fatma Brahim Salem Frente Polisarioaren Euskal Herriko ordezkaria

«Lurralde okupatuetan giza eskubideen bortxaketa ez sinesteko modukoa da»

Tolosako Trianguloan 'Erresistentzia haima' jarri dute Sahara Mendebaldeko errealitatea azaltzeko; bihar elkarretaratzte isila egingo dute 20:00etan

Marokoren eskutik jasaten dituzten erasoak salatzen antolatu dute Tolosako ekimena; Fatma Brahim Salem-ek sahararren etorkizunaren inguruan hitz egin du **04**



Tolosako Trianguloa plazan dagoen 'Erresistentzia haima' ekintzaile sahararrak. A. IMAZ

Albiztur, Bidegoian eta Alegia itzulerako partidei begira

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan Alegia izan zen joanekoan galdu zuen bakarra; Albizturrek Donostiari irabazi zion 2-1eko emaitzarekin **06**

Ibai Iriarte

Bilduren Tolosako alkategaia

«Politikari profesionalen aroa bukatu da; orain herritarren garaia da»

Elkarrizketa **02**



Askaezazu ^{zure} irudimena ^{zure} DISEINATU


ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Hertz Pasealekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • www.ceinpro.es

Udal eta Foru
Hauteskundeak 2011

22

Ezagutu zure herriko
hauteskundeen emaitzak
eskaldeko egunkarian.
Maiatzak 23an
HITZA argitaratuko dugu.

hitza ^{info}


www.montaiberta.com
2011-2012 ikasturterako AURREMATRIKULA ekainaren 1etik 10era

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak): Itse-apainketa
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak): Estetika
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak): Estetika eta Edertasuna (LOE)

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 • Tel.: 943-13 42 23 Fax: 943 89 41 96
012291aw@heziketa.net • 20000 ZARAUZ

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**Ibai Iriarte** ▶ Bildu alderdiaren Tolosako alkategaia

Herritarren parte hartzea eta udalen kudeaketaren gardentasuna bermatu behar direla uste du Iriartek. Aro berri bat behar dela dio: «Gorbatadunen garaia bukatu da, eta herritarrena heldu da».

«Tolosan, Bildu da eredu berria ekarri dezakeen bakarra»

Rebeka Calvo

Ibai Iriarte (Tolosa, 1983) Euskadi-ko Gazteri Kontseiluaren Gipuzkoako koordinatzailea da, eta politikagintzan jarduteko prest badago ere, politikari baino, herritar sentitzen dela dio. Bere lehen egitekoa argi du: «Udala herritarrei ireki, eta partaidetza bultzatzea».

**Zeintzuk dira datozen lau urteetarako aurkeztu duzun programaren il-
don nagusiak?**

Lau puntutan banatu dugu. Alde batetik, jakitun gara bizi dugun krisialdi ekonomikoko honetatik ateratzeko denak batera egin behar dugula lan. Krisia batzuen mugagabeko hazkunde nahiak eragin du, eta ez langileek. Ildo honetan, hitzarmen sozioekonomikoa delakoa landu nahi dugu. Honek esan nahi du Tolosaldeko eragile sozial, politiko eta instituzio desberdin artean etorkizunari begira jarri behar garela, eta industria ikuspegitik Tolosak jarraitu beharreko bidea zehaztu. Bestalde, gizarte zerbitzuak indartuko ditugu, eta publikotasuna bermatu nahi dugu. Administrazioak jendearen oinarriko beharrik asetzeko, gizarte zerbitzuak onak bermatu behar baititu.

Partaidetzarena ere, behin eta berriz errepikatuz izan duzue.

Partaidetzaren inguruko eztabaida sakona burutu nahi dugu; kudeatzeko modu berri bat landu behar da. Gorbatadunen eta politikari profesionalen aroa bukatu behar da, beraiek izan dira krisi egoera honetan sartu gaituztenak, eta orain herritarren garaia da. Programarekin bukatzeko, zentzuzko etxebizitza politika zuzurra bultzatuko dugu. Argi dago azken 8 urtetan eraiki besterik ez dela egin, baina horrek ez du etxebizitzaren arazoa konpondu. Alde Zaharrari 'diskriminazio positiboa' eman behar zaio, ganorazko bizitoki bilakatu. Eraikita da goena ondo kudeatu behar dugu, eta dauden 1.200 etxebizitza hutsi irtenbidea eman.

Eta zein da beraz, Laskorain Goikoari dagokionez zuzen asmoa?

Argi duguna da Laskorain Goiko-

aren aurreikusitako etxebizitza guztiak ez direla behar, eta beraz, plana berriz ere aztertu behar da. Partaidetzaren beharra azpimarratzen dugu behin eta berriz, eta zentzu horretan uste dugu auzokideekin eta tolosar guztiak eztabaidatu beharreko gaia dela. Argi dugu ere Bonberenea hor da goela, eta hor egoteko eskubide-rik haratago etorkizuneko gune-anakito garrantzitsu bat izan behar duela. Egin beharreko etxebizitzak alokairuzkoak izan behar-ko dira, eta jarduera ekonomiko garbiekin bat egin beharko dute.

Tolosan aparkalekuen gaiak ere hika-mika ugari sortzen ditu.

Gai konplexua da, interes eta behar desberdinak daude; kotxe bakarreko familiak daude, lau dituztenak... Azken 10 urteetan autoen kopurua biderkatu egin da. Tolosak mugikortasunaren plan propioa bideratu behar du, eta konplexua bada ere, interes kontrajarriak daudelako, auzotarrek hitz egin behar dugu. Gure abiapuntua da Tolosan oinezkoek eta bizikletek nolabaiteko lehentasuna izan behar dutela. Duela 10 urte Alde Zaharrean kotxeak ibiltzen zirenean, inork ez zuen hori zalantzan jartzen, baina azkenean ikusi da, egokiagoa dela oinezkoentzako gune izatea. Aldaketak hasieran traumatikoak dira. Autoei mugak jarri behar zaizkio, eta horretarako irtenbideak eskaini.

Zein da azken urteetako politikagintzaz egiten duzuen irakurketa?

↓ Gertutik

Zure egunerokotasunean zer egiten duzu politikagintzatik deskonektatzeko? Ez du deskonektatzen! Ni ez naiz politikaria, herritarra naiz, eta beraz, mendira joaten banaiz ere buruhauste berdinak ditut.

Zerk ernegatzen zaitu herritar bezala? Politikari gorbatadun grisen jarrera orojakileak eta den nezenen hitz egiteak, herritarrak kontutan hartu gabe.

Aurreko zortzi urteetan EAJk Tolosan ez du inolako oposiziorik izan, eta gainera, oparoaldi ekonomikoko urteak izan dituzte; diru iturri asko izan dituzte kanpotik, eta eraikuntzan oinarritutako itxurakeriazko politika egin dute, baina oinarriak ez dira landu. Inbertsio handiak bideratu dira, eta orain, krisiarekin, dena gainera erori zaigu. Tolosako Udalaren egoera ekonomikoa zein den ere ez dakigu.

Ezker abertzaleak salatu zuenez, Gipuzkoako bigarren udalik zorpetuena da Tolosakoa.

Oso arduratuta gaude Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako da-

«Zentzuzko etxebizitza politika zuzurra bultzatuko dugu»

«Aurreko urteetan itxurakeriazko politika egin da, baina ez dira oinarriak landu»

tu horrekin. Tolosako Udalaren zorpetze maila %17 ingurukoa da, 990 euro pertsonako. Alkatetza lortuz gero lehen gauza udalaren egoera ekonomikoaren argazkia ateratzea izango da, herritarrei azaltzeko, eta zer egin erabakitzeko. Bildu da eredu berria ekarri dezakeen alderdi bakarra. Bildu koalizioaren azken momentuko legezkatzearen ondotik, beste alderdietatik entzuz izan da kanpaina egin duzuela.

Hori esan didaten guztiei, esan diet ez dietela opa guk bizitu dugun egoera. Ez da batere gozoa estatu baten luparen azpian egotea, sorgin ehiza bizitu dugu. Beste guztiak kartelak eta bestelako kontuak prest zituzten bitartean, guk ez genekien zer egin beharko genuen. Bildu dagoen tokian berrago, gizartearen presioa hori egon delako da, baina sortu dugun ardua eta izan dugun tentsioa ez dion inori opa.

Euskal Herrian aro berri bat ireki berri dela ere esan izan duzue.



R. CALVO

Bilduren aurreko egoeran asko oso eroso egon dira, nahiz eta kontrakoa esan, eta gu berriz, sufritzen egon gara. Bada garaia Euskal Herrian bake eta normalizazio bidean hasteko. Euskal herritarrok beste egoera bizitzea merezi dugu, eta zentzu horretan guk lanean jarraituko dugu bake agertoki batean egoteko eta erabateko demokrazia lortzeko. Baikor gaude, baina apalatasun osoz, lanerako gogoz, lana egiteko garaia delako.

Tolosaldean osasun publikoaren aldeko aldarriak indarra hartu du, zein da Bilduren jarrera?

Lehenik eta behin Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataforma zoriundu behar dugu. Alderdi politikoguztien iritzia eta jarrera mahaia gainean jartzea ere lortu dute. Osasun publikoaren, eskualdeko ospitale publikoaren, eta ambulatorioak espezialitateak berreskuratzearen alde gaude, hori baita modu bakarra osasunaren unibertsaltasuna bermatu, eta denek eskaintza bera izateko. Herri mugimenduak eta administrazioak batera egin behar dute lan. Gipuzkoan jasoko ditugun emaitza onak ere horretara bideratuko ditugu.

AHTren lanak eskualdera iritsi dira.

Egitasmo hau aurretik aipatutako mugagabeko hazkuntzaren beste adibide bat da, eta hau Apatzerreko bigarren zabalkuntzaren lotu behar da, izan ere, zabaltzea AHTren lurra nonbait sartu behar dituztelako egingo dutelako, ez beharra dagoelako; gunea erdi hutsa dago, oso mugimendu gutxirekin. AHTk gutxi batzuen interesei erantzuten die, eta ez herriari. Gaur egun gizarte zerbitzuentzako dirurik ez dagoela diote, baina 6.000 milioi aurreikusituzte AHTrentzako, pentsa zenbat kontu egin daitezkeen diru horrekin. Astakeria bat da, ez

dugu beharrik, eta ez dio tolosarrok eta euskal herritarrok ditugun beharrei erantzuten. Horrez gain, azpiegitura defizitario bat izango da martxan egonda ere, bezar biziarteko hipoteka bat dugu.

Eta zein jarrera du Bilduk zabor bilketaren eredu desberdinen inguruan?

Pozten gara eztabaida mahaia gainean jartzeaz. Zaborraren kudeaketak sortzen dituen gastuak, zenbat birziklatzen den, nora doan hori... informazio guzti horrek herritarren esku egon behar du. Oso garrantzitsua da berriz ere etorkizunari begiratu eta utziko dugun zor ekologikoaren gaineko hausnarketa egitea. Gure asmoa da eztabaida mahaia gainean jartzea, informazioa plazaratzea, eta hortik abiatuta denen artean erabakitzea zein bide jarraitu behar dugun. Errausgailuaren eztabaida plazaratu behar dugu, denon osasuna jokoan dago eta.

Euskarazko komunikabide ez publikoek euren etorkizuna bermatzeko konpromisoa eskatu diete alderdi politikoei, zein da zuen iritzia?

Komunikabideei eta euskarari dagokionez, bada garaia tolosarrok azken urteetan egindako lana kontutan hartu, eta udalak euskalgintzan salto kualitatiboa emateko. Gizarteak erakutsi du euskalgintzarekiko konpromisoa, eta orain udalaren garaia da, indar hori hartu eta euskararen eta euskal kulturagintzaren aldeko apustua egin behar dugu. Tolosa euskal hiztun izan behar da; jende askok daki euskaraz, baina erabilera bultzatu behar dugu, arlo guztietan, ez hezkuntzan soilik. Aisia, udal administrazioa, enpresa mundua, kirola... esparru guztietan eman behar du udalak salto kualitatiboa. Euskarazko komunikabideek zeregin handia dute horretan, eta beraz, lagundu eta bultzatu behar ditugu.

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**Irudia ▾ Tolosa****EAJ LARRAMENDIN**

Tolosako EAJko kideek Larramendi kale inguruko proiektuak aztertu zituzten, egindakoak eta egitekoak. Garatutako en artean, Voith Gorostidiko etxebizitzak eta aparkalekuak, Arramele ermitaren berreskurapena eta Asuntzion klinikarako igoera berria aipatu zituzten. Egitekoetan, aldiz, Arriarango zubia, Arkaute parkea, Sevende-neako eta *Isla autobiare*n garapenak aipatu zituzten. A. IMAZ

**Gutuna****Eman botoa Bilduri**

PSOEk agintarien eta burgesiarren beldur handiena, ezker abertzalea eskubide demokratikoen alde mobilizazio masiboak antolatzen jarraitzeko gai izatea da; langile klasearen defentsan greba orokorrak antolatzeko eta bultzatzeko gai izatea, eta Euskal Herri aske eta sozialista baten aldeko borrokan ehunka mila langile eta gazte bilduko lituzkeen alternatiba bat antolatzeko gai izatea. Sorturen ilegalizazio antidemokratikoaren ondoren, milaka langile eta gazte poz handiarekin hartu zuten Bildu hauteskundeetan egotea utziko duen Konstituzionalaren aldeko sententzia. Bilduren aldeko botoa, logikoki, eskubide demokratikoen aldeko pauso garrantzitsuak emateko aukera bezala ulertu da. Horregatik, Bilduk emaitza historikoak lor ditzake maiatzaren 22an. Euskal Herria Sozialistatik uste dugu beharrezkoa dela Euskal Herriko langileek eta gazteek botoa Bilduri ematea. Baina aldi berean, zintzoki uste dugu beharrezkoa dela ezker abertzaleak inolako konfiantzarik ez izatea EA bezalako alderdi burges batean. Gure ustez, EA ez dago autodeterminazio eskubidearen alde borrokatzeko prest. Bere demagogia kalkulatuaren eta bere ahulezia organikoaren zati da gaur

egun duen diskurtsoa. Gure ustez, beharrezkoa da gogoratzea EAK orain arte egindakoa: enpresariari eta bankariari interesak defendatu dituzte, iraganean Eusko Jaurilaritzatik ezker abertzalea erpremitzera konprometitu ziren, Euskal Herriaren askatasunaren alde hatz bakar bat ere ez dute inoiz mugitu...

Euskal Herriaren askatasunaren eta sozialismoaren alde borrokatzeko, langile klasearen eta gazte-riaren indarretan soilik izan behar dugu konfiantza, hauek baitira gure herriko askapen nazional eta sozialaren benetako motorra. Gure ustez, ezker abertzaleak gehiengoaren babes politikoa iraultzaile bat defendatuz irabazi behar du eta irabaz dezake: langile klasearen batasuna mota guztietako zatiketen ginetik; autodeterminazio eskubidearen defentsa eta konplexurik gabe enpresa handien eta bankaren desjabetzea planteatuko lukeen programa sozialista, langileok gure izerdiarekin sortzen dugun aberastasuna biztanleriaren gehiengoa, enpleguak, hezkuntza, osasuna, hizkuntza, kultura eta gure familien etorkizuna defendatzeko izan dadin. Hau da bide bakarra Euskal Herriak merezi duen askatasuna lortzeko.

■ **Ibon Artola**. Euskal Herria Sozialistaren izenean.

Leaburu-Txaramako eta Leitzako Bilduren hautagaien aurkezpenak

Bihar, 20:00etan egingo dute Leitzako Bilduko hautagaien aurkezpena herriko plazan

Asier Imaz

Leitzako Bilduk ostiral honetan egingo du bere hautagaien aurkezpena. Ekitaldia bihar, ostirala izango da, 20:00etan, plazan.

Leitzako Bilduren alkategaia Oier Eizmendi da; hurrengo postuetan daude: Aitor Etxarri, Miren Josune Marzol, Miren Andone Salbarredi, Onintza Bengoetxea, Irati Barandiaran, Arantxa Iparragirre, Esteban Huici, Jose Antoni Olaetxea, Jose Fermin Lizarraga eta Jose Fernando Garcia.

Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako Bilduk bere hautagaien eta programaren aurkezpena egin du. Zerrendaburua Luisa Uzkudun da, eta jarraian doaz Arkaitz Esnaola, Amaier Ei-

zagirre, Jose Ramon Eizagirre, Mari Jose Alkorta, Jokin Larreta, Jose Manuel Iriarte, Maier Ugartemendia, Jabier Bujanda eta Lourdes Adurriaga, hurrenez hurren.

Programan azaldu dutenez 10 herritar «ezkertiar eta abertzalez» osatu dute zerrenda. Eta, politika munduan berriak diren arren, «ilusio eta gogo handiaren» omen daude. Hurrengo lau urteetan, «ahalik eta gizarte zer-

bitzu hobereenak dituen herri bat sortzea» izango dute helburu. Honen batera, udalean dauden bi zerbitzu publiko nagusiak diren ura eta zaborra ere kontutan hartuko dituzten gaiak dira. Herritar guztien «bizi kalitate duin baten alde» egingo dute lan. Kultura eta kirola bultzatu nahi dituzte, horretarako beharrezkoak diren ekimenak babestuz. Eta herriko argiak energia berriztagarriekin sortzea ere aztertuko dute.



Leaburu-Txaramako Bilduko hautagaiak. HITZA



Leitzan Oier Eizmendi da Bilduko alkategaia, jarraian doaz Aitor Etxarri eta Miren Josune Marzol. HITZA

EAJ PNV

Nagore Pujádena
Villabonako
Hautagaia

Villabona
Villabona
Villabona

ONENA EMATEKO GARAI



A. IMAZ

Fatma Brahim Salem ◊ Frente Polisarioaren Euskal Herriko ordezkaria

Saharar herriari elkartasuna azaltzeko aukera dago Tolosako Trianguloan, 'Erresistentzia haima' kokatu baitute bertan; 10 egun igaro ondoren, bihar kenduko dute eta ondoren elkarretaratze isila egingo dute Trianguloan bertan, 20:00etan

«Atxiloketak ez dira amaitu»

Asier Imaz Tolosa

Hamar eguneko kanpaldia egiten ari dira Trianguloa plazan, gau eta egun, saharar herriari elkartasuna azaltzeko. Iragan astean Fatma Brahim Salemen bisita izan zuten bertan dauden ekin-tzaileek. Brahim Salem Frente Polisarioaren Euskal Herriko ordezkaria da, eta bere hitzak saharar herriarenak dira.

Zergatik ari zarete kanpaldia egiten?

Lurralde okupatueta jasan dituzten erasoak salatze hainbat protesta egin dira Euskal Herri guztian, eta Tolosakoa horietako bat da. Aaiunen, Smaran, Dakhlan... giza eskubideen urraketak

eguneroko ogia dira. Baina kanpoan ez dago Marokoko diktadura bertan egiten ari denaren informaziorik. Egia zabaldu ez dadin, ez dute lekukorik nahi. Euskal Herritik eta beste hainbat lekutatik joandako ordezkarietzi ateak eta mugak itxi dizkie Marokoko erregimenak, giza eskubideen urraketan lekuko zuzenak izan ez daitezten. Ondorioz, gure herriaren ordezkari bezala, protesta ekimen baketsuak egiten ari gara. Bertan gertatzen ari dena salatze, eta 35 urte luze daramatzen zapalkuntza ahaztua izan ez dadin.

Aaiun albiste bilakatu zen 2010eko azaroan. Ondoren zer gertatu da?

Egoerak berdin jarraitu du, era-

soak indar gutxiagorekin egin dituzten arren. Manifestazioa irten ziren familia guztiak kontrolaturik dituzte, jarraipen bidez. Atxiloketak eta desagerketak ez dira amaitu. Herritarrak izuturik daude, benetan beldurturik, justizia egin behar oraindik hainbat atxiloturen berririk ez dagoelako.

Atxiloketak, desagerketak...

Etxeetara sartu eta jendea eramanen dute. Berdin dio...

Zer leporatzen diete?

Ez dute esaten. Familiari ez diote informaziorik ematen, eta galdezko ere ez duzu eskubiderik. Zure semearengatik, amarengatik edo arrebarengatik galdezka joaten baldin bazara, zu atxilotzen zaituzte. Giza eskubideen bortxaketa ez sinesteko modukoa da. Mendebaldeko gizarteak hori ulertzea oso zaila da, beraiei hori gertatzea ezinezkoa delako. Oso larria da Sahararen gertatzen ari dena, eta zorritzarrez egia da. Hori horrela ez dela esaten baldin badu Marokok, erraza dauka, zabal ditzala ateak. Frente Polisarioa gezurretan baldin badabil, mugak zabal ditzala. Baina kazetariak, ordezkari politikoei edo lekuko izan daitezkeenei ez die sartzen uzten.

Polizia etxean sartzen da, eta ondoren?

Berdin dio eguna edo gaua izan, ez dute beldurrik. Emakumeak, gazteak eta agureak ematen dituzte, kalean dabilena eramaten dute, telefonoak kontrolaturik dituzte, ordenagailuak, berdin, eta lurralde okupatuetatik irtetea ez da hain erraza, bisaturik ez baitute ematen. Hori bai, hainbat saharar Maroko iparraldera esportatu dituzte.

Atxilotuekin zer gertatzen da?

Ez dakizu zer gertatuko zaizun. Espetxera eraman eta torturatu egiten zaituzte; ondoren, batzuk kalean uzten dituzte botata, eta besteez oraindik ez dakigu ezer. Aske gelditzen direnak, giza eskubideen aldeko mugimendueta-ko ekintzaiile sahararrak dira. Amnistia Internazionalak edo gobernu kanpoko erakundeek ezagutzen dituzte hauek, eta euren defentsan irteten direnez, aske gelditzen dira. Herritarrak ordea, ez dituzte askatzen, hil egiten dituzte.

Zein da burua etortzen zaizun kasu zehatza?

Saharar baten gorpua 4 hilabete daramatza ospitaleko hotzgaile batean. Familiak ez du lurperatu nahi, baldin eta justiziarik ez bada egiten.

Zergatik hil zuten?

Taberna futbol partida bat ikusten ari zen. Kalera irten zenean,

auto bat gelditu eta buruan tirokatu zuten. Funtzionarioa zen, itxuraz ez zuen ezer egin; baina sahararra eta jantzia baldin bazara... ez da kasu bakarra izan.

Azken hilabeteetan, Afrika iparraldean aldaketa eske ibili dira herritarrak. Marokon ere jendea kalera irten zen protestan; nola jarraitu zenuten mugimendu hori?

Marokoren kasuan oso kontrolaturik dituzte. Beste herrialdeetan baina oihartzun gutxiago eduki dute gainera, kontrol horren ondorioz. Pentsa eurak horrela baldin badaude, nola dauden sahararrak.

«Maiatzaren 20a Saharako herriarentzat esanahi handia duen data da»

Maiatzaren 20a oso egun berezia da zuzentzat. Tolosan gainera, elkarretaratzea egingo duzue.

Borroka armatuari ekin zitzaion data horretan. Saharako herriarentzat oso esanahi berezia duen eguna da. Ostiralean Bilbon manifestazioa egin nahi genuen, Marokoko enbaxadaren aurrean, baina zintzilik dago oraindik. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko hainbat puntutan egingo ditugu protesta ekimenak 20an, baita Tolosan ere. Bertan, hemen aurkitzen diren sahararrez gain, gure herriaren lagun diren kide euskaldunak egingo dira.

Egun su etene goerazaudete.

Bai. Nazio Batuen ikuskatzaileen egonaldia 6 hilabetez luzatu da, gainera. Hauek Sahararen zer gertatzen den ongi dakite, baina ez dute salatzen, eta ez dute ezer egiten egoera konpontzeko; Marokok erositako dauzka.

Su etena amaitzeaz aurkitzen al da?

Frente Polisarioak ez du oraindik erabakirik hartu. Irten bide baketsuaren aldekoak gara, eta horretan ahalegin guztiak egin nahi ditugu. Baina herritarrak eta gazteak Saharako gobernuari ekintzak eskatzen ari zaizkio, ikusitakoak ikusita, diplomaziaren bidez ez dela ezer lortuko argi dute. Frente Polisarioaren Batzar Orokorra itxarongo da. Data zehatzik ez baldin badago ere, abenduan izango dela dirudi. Hor hartzen den erabakiak gauzak aldatuko ditu. Ez gara indarkariaren eta gerraren maitaleak; aurrez gerra ezagutu du eta badakigu zer den. Orain ez gaude gerran, ezta bakean ere. Gerrara itzultzea erantzukizun handia da, baina beste aukerarik ez baldin badugu, ez gara besoak gurutzaturik geldituko. Gure herria nekaratzea ez dago gure hizkuntzan, hori Nazio Batuek, Marokok eta bere aliatuek egiten dute. Espaniaren kasuan, egungo gobernu latsagarria da politikoki. Sahararen egoeran inguruan, lehen itxurakieran ibiltzen baldin baziren, orain Marokoren enbaxadore zintzoak bilakatu dira.

San Frantzisko 21 • TOLOSA • Tel.: 943 11 42 14
poxpolin@poxpolin.com • www.poxpolin.com

LIKIDAZIOA

Zaborraren kudeaketaren inguruko hitzaldia antolatu dute

Sanblas-piko Gazte Asanblada Maiatza Gorria aurrera eramaten ari da; gaur hitzaldia egongo da 19:00etan

Asier Imaz Tolosa

Iragan larunbatean maiatza gorri-pintatzen hasi ziren Sanblas-piko Gazte Asanbladako kideak. Hilaren 31 bitarte, hitzaldiak, irteerak, bazkariak eta kontzertuak antolatu dituzte.

Urrutira joan gabe, gaur 19:00etan, Otsabiko lokalean zaborraren kudeaketa izango dute eztabaidagai. Gai *Hondakinek badeute irtenbidea* izango da eta gazte asanbladakoek herritar guztiak gonbidatu dituzte hitzaldira. Hizlaria Mikel Ikatzategi izango da, Gipuzkoa Zero Zabor plataformako kidea. Usurbildarra izaki, bere herriko esperientzia kontatuko du Ikatzategik, besteak beste. Atez ateko bilketaren inguruko informazioa emateaz gain, datu zehatzak jarriko ditu mahai gainean, gaiaren inguruan iritzia janzteko balio izango duten datu objektiboak. Lehen esan bezala, hitzaldia 19:00etan hasiko da, Otsabiko lokalean.

↓ Egitaraua

GAUR, HILAK 19

■ **19:00etan.** Otsabin ondakin-kudeaketari buruzko hitzaldia.

HILAK 24, ASTEARTEA

■ **19:00etan.** *Sahara no se vende* dokumentalaren proiektzioa Otsabin.

HILAK 26, OSTEGUNA

■ **19:00etan.** *Alpeetan eskalada* mendiko proiektzioa Otsabin.

HILAK 28, LARUNBATA

■ **09:30ean.** Otsabitik irteenda, *Aralar atzo eta gaur* ibilaldia Lizarrustitik barrena.

■ **14:00etan.** Bertso bazkaria Otsabin. Apuntatzeko zerrenda Denak tabernan.

■ **Ondoren.** Kontzertua.

HILAK 31, ASTEARTEA

■ **19:00etan.** Euskal Herria Sozialistaren eskutik, *Herri arabiarretako iraultza*. Otsabin.

→ Laburrak

Udako ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

TOLOSA › Usabal kiroldegiko udako ikastaroetan izena emateko aukera zabalik dago. Hamabost egunekoak izango dira eta ekainaren 27an hasi eta abuztuaren 29ra bitarte egongo dira, lau ataletan banatuta. Informazio gehiago edo izena emateko Usabal kiroldegiarekin jarri behar da harremanetan.

Tolosa Kantarik Iruñera bidaia antolatu du

TOLOSA › Iruñean Kantuzize-neko kantu-jira hileko lehenbiziko larunbatean egiten dute Iruñean. Tolosa Kantarik bertara joateko autobusak atera ditu, ekainaren 4rako. Jada autobus bat beterik aurkitzen denez, bigarregarako izena lehenbait lehen ematea eskatu dute. Egun pasaren prezioa 18 eurokoa da eta txartelak toki hauetan daude salgai: Xirimiri; Babes; Elurra eta Ekaitz tabernan. Irteera 09:30ean izango da, Tolosako zezen plazaren aurrean.

AHTren aurkako mendi martxa asteburuan

AZPIEGITURAK › AHTren aurkako mendi martxa antolatu dute Tolosa-Hernani zatian barrena. Hilaren 21ean, larunbatean, Tolosako geltokitik abiatuko da ibilaldia, 09:30ean. Lo egiteko zakua eta motxilak furgonetan sartu ondoren, Anoeta aldera joango dira, 14:00etan bertan bazkaltzeko. Janaria norberak eramane behar du. Gaua Aduan pasako dute. Igandean Andoain aldera abiatuko dira. 18:00etan iritsiko dira Hernanira.

Zine forum-ean 'Historias de la edad de oro'

TOLOSA › Zine forumaren barruan, *Historias de la edad de oro* pelikula ikusteko aukera egongo da Tolosako Leidor aretoan, jatorrizko bertsoan. Lehen emanaldia 19:00etan izango da eta bigarrena 21:45ean. *Historias de la edad de oro* Cristian Mungiu-k zuzenduriko pelikula errumaniar-frantsesa da. Bertan, komunismoaren azken urteak kontatzen dira, Errumanian, bost historia aitzakiatzat hartuta. 155 minutuko iraupena du filmak.

INTERNET zure MUGIKORREAN DOAN BETIKO.

ETXEAN INTERNET IZATE HUTSAGATIK, MUGIKORREAN DOAN DAUKAZU INTERNET

Posta elektronikoa, sare sozialak, nabigazioa eta Interneti eskatzen diozun guztia zure mugikorrean.

www.ats3ginduteuskaltel.com

Etxean Internet (Banda Zabal Finkoa) kontratatuta duten edo Euskaltelen Konekta-pintxoak (Konekta 500 MB edo horik garakoa) duten bezeroentzako Euskaltelen telefonia mugikorreko abantaila eskusizkoa da ATS3GINDU.

Irudia ◊ Amezketaketa



ARANTZAZUTIK LOIOLARA

Egun ederra pasatu zuten 60 urtetik gorako amezketarrek, aurreko igandean egindako bidaian. Arantzazun izan ziren goizean eta eguerdian, eta bertan izan ziren Pello Zabalarekin. Arratsaldean, Loiolara joan ziren eta han Joxe Mari Karrerarekin izan ziren. HITZA

Hilberriak eta eskertzak

PILAR EIZAGIRRE ZINKUNEGI
- Goian bego -
Ama beti gure bihotzean.

Senarra: Julian Uranga.
Seme-alabak: Iñake eta Loren, Karmele eta Patxi, Martin eta Karmele, Arantxa eta Mikel.
Bilobak: Irati, Lore, Itsaso, Uxue, Ainara eta Julene.
Hileta elizkizuna GAUR izango da, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zarauzko parrokian.

ZARAUZ, 2011ko maiatzaren 19a

PATXI ALKORTA ETXEZARRETA
jauna
Irrintzi elkartearen izenean, eskerririk asko eta besarkada handi bat Patxi.

Irrintzi Elkarte

Vilabonan, 2011ko maiatzaren 19a

Arnedoko bidaiarako izena emateko azken eguna

IKAZTEGIETA | Ikaztegieta Udalak jubilatuentzako Arnedora bidaia antolatuta du. Hilaren 26an, ostegunean, egingo dute. Pertsonako 24,5 euro ordaindu behar da bidaia. Interesatuak izena udaletxean eman behar dute. Horretarako epea gaur bukatzen da.

XABIER BENGOETXEA PALACIOS
jauna
Eskerririk asko Irrintzi Elkarte kide izateagatik. Muxu goxo bat Xabier. Besarkada bat senideel.

Irrintzi Elkarte

Tolosan, 2011ko maiatzaren 19a

PELLO EGIGUREN IRAOLA
ZURE OROIMENEZ
GOROSTIDIKO

LAB

Tolosan, 2011ko maiatzaren 19a

Alegiak baino aukera gehiago dituzte Bidegoianek eta Albizturrek Herriartekoan

Bidegoianek 3-0 irabazi zuten joanekoan, Albizturrek 2-1 eta Alegiak 2-1 galdu zuten Usurbilen

Imanol Garcia

Herriarteko Pilota Txapelketan final zortzirenetako neurketak jokatzeko ari dira eskualdeko hiru herri. Bidegoian eta Albiztur aurretik doaz kanporaketan, eta Alegia, berriz, atzetik. Asteburuan jokatu dituzte itzuliko partidak.

Bidegoianek 3-0 irabazi zion Lasarteri eta kanporaketa ia gainditurik dauka. Kadeteetan 22-5, jubenetan 22-9, eta nagusietan 22-14 irabazi zuten. Luis Galarraga taldeko arduradunak dioenez, «hiru partidak irabazteaz gain, egindako tantoen alde handia

da». Lasarten partida bakarra irabazita, aurrera egingo dute Bidegoiangoeak.

Etxean jokatu zituzten joanekoak eta partida «errazak eta azkarrak» izan ziren, Galarragak azaldu duenez. «Nagusietan partida gogorra espero genuen, baina beraien atzelariak bekainean pilotakada jaso zuten, eta horrek neurketa baldintzatu zuen». Itzulerako Lasarten jokatu dute, etzi, 11:00etan.

Albiztur 2-1 irabazten ari da neurketa. Gorka Arandia taldeko arduradunak dioenez, «ea ezustekoa emateko gai garen». Etxean jokatu zituzten joaneko partidak eta «oso parekatuak» izan zirela dio Arandiak. Kadeteetan galdu egin zuten, 13-22; jubenetan irabazi, 22-18; eta nagusietan ere irabazi, 22-15. «Ez dago guztiz erabakita», esan du Arandiak.

Kadeteetan donostiarrak gehiago izan zirela azaldu du Al-

bizturko arduradunak. Jubenetan uste baino borrokatuagoa izan zen. «17-13 galtzen joan ginen eta gero buelta ematea lortu genuen». Nagusietan partida «oso ona» jokatu zutela dio Arandiak eta garaipena lortu zuten. Itzulerako partidak etzi izango dituzte, Donostiako Atano III.a frontoian, 16:30ean hasita.

Alegiarrek 2-1 galdu zuten Usurbilen. Kadeteetan 22-3 galdu zuten, jubenetan 1-22 irabazi, eta nagusietan 22-7 galdu. Jose Luis Zabalak dioenez, «zaila» dute kanporaketa gainditzea, «baina dena posible da, eta gu saiatuko gara irabazten».

Itzuliko igandean izango da, Alegian, 17:00etan. Zabalak dioenez, «espero dugu jendea etortzea, eta beraien animoekin kanporaketa aurrera ateratzea». Nagusietan aldaketak izango dira. Zabalak ezingo du jokatu eta bere ordez Artola ariko da.

→ Laburrak

Rekondo finalerdietara, eta Zabaleta finalean

LEITZA | Jon Rekondo leitzarra Eusko Label Txapelketako finalerdietara pasatu da urrezko mailan. Olasagasti ordezkatu du txapelketan eta aurrera egin du. Bere aldetik, Mikel Zabaleta leitzarra finalean dago, txapelketa berdinean baina 15 urte azpiko mailan. Zabaletak bere aurkaria nor den jakingo du asteburuan. Hain justu, Vicente, Etxeberria II.a eta Larrea III.a aizkolariaren arteko lehiaren irabazlea izango da.

Udako ludotekan izena emateko aukera zabalik

ALTZO | Udalak udako ludoteka antolatu du aurten ere. Ludotekan parte hartu nahi dutenek, haur eta gaztetxoek zein begiraleek, izena emateko aukera zabalik dute. Horretarako udaletxera jo behar dute ekainaren 15a baino lehen. Haur eta gaztetxo bakoitzak 38 euroko kuota ordaindu behar du izena ematerakoan. Udako ludotekari ekainaren 27an emango zaio hasiera eta uztailearen 27an amaituko da.

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskuraz gure da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Pupu eta Lore txikiak lehen aldiz Irurako plazan izango dira, gaur

18:00etan hasiko da 'Ongi etorri Pupu eta Lore' ikuskizuna; garraio publikoan gerturatzea nahi dute

Eneritz Maiz Irura

Irurako Kultur Astea aurrera doa, eta etxeko txikiaren gozamenarako, gaur, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Iruran izango dira. 18:00etan hasiko da *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna Irurako plazan.

San Migel Plazako sarbide guztiak itxita egongo dira 16:00etatik 19:00etara. Garraio publikoan gerturatzeke deia egin dute Irurako Udaletik. Kotxez etorri gero, inguruetak kaleetan aparkatu beharko dira. Ordu berean, Hip Hop ikastaroa izango da Gaztelekuan.

Bihar, marrazki lehiaketa egingo dute 17:30ean plazan. Eta 22:00etan, herritar guzientzat *80 egunean* filma eskainiko dute portikoan. Larunbatean berriz, Ikastolaren Eguna ospatuko dute irurarrak.



Pirritx eta Porrotxekin batera Marimotots ere izango da. N. LATABURU

↓ Irurako Kultur Astea

GAUR

- **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** 18:00etan, *Ongi etorri Pupu eta Lore*, haur antzerkia.
- **Hip Hop.** 18:00etan Hip-Hop ikastaroa Gaztelekuan.

BIHAR

- **Marrazki Lehiaketa.** 17:30ean egingo dute plazan.
- **'80 egunean' filma.** Portikoan 22:00etan bideo proiektzioa egingo dute.

- **Mus Txapelketa.** 22:30ean Zaharretxe tabernan jokatuko dira finalerdiak eta finala.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

- **Ikastolaren Eguna.** Ikastolako festa egingo dute.

ERAKUSKETA

- **17:00etatik 19:00etara.** Eskulan, bolillo eta tailako ikasle-erakusketak Kultur Gunean egingo dira.

Irudia ◊



ELIKADURA HIZKETA GAI

Eskolako Agenda 21ean, Iruran 30 bat ikasle joan ziren udaletxera lanaren aurkezpena egiteko. Proposamenen artean datorren ikas-terterako baratzat jartzeko lur sail bat eskatu zuten. Anoetan berriz, ikasle ordezkariek, irakasle, zuzendari eta guraso batekin gerturatu ziren udalera. Besteak beste, Gregorio Zuaznabar Tolosako Kontsumo Taldeko ekoizlearen baserrira bisita egin zuten. Proposamenen artean, urtaro bakoitzean azoka bat egitea izan zen. HITZA

Euskal Film Laburren VIII. Zirkuitua Atxulondon

Bihar 20:00etatik aurrera, azken urtean sorturiko bederatzik film labur ikusteko aukera izango da doan

E. Maiz Zizurkil

Laburbira Euskal Film Laburren VIII. Zirkuituaren barnean, Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean izango da, 20:00etatik aurrera. Laburbira izeneko VIII. zirkuitu

hau Euskara Elkartearen Federazioak, Topaguneak antolatuta du, eta Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta Zizurkilgo Udaleko Kultura Lansailaren laguntzarekin iritsi da eskualdera. Sarrera doan izango da.

Aurtengoa zortzigarren zirkuitua da, eta bertan azken urtean euskaraz sorturiko 9 film labur ikusi ahal izango dira ordu bete iraungo duen emanaldian. Euskarazko ikus-entzunezkoen alorrean sortzaile gazte berriak sormen handiz datozela egiaztatuta

ahal izango dute bertaraten diren ikusleek. Baina badira tartean ere dagoeneko eskarmentu dezente duten egileak.

Zortzigarren zirkuitu honetan haurrek izango dira ikusi ahal izango diren lanak: *Maritzu*, Kepa Errastirena; *Artalde*, Asier Altunarena; *Ondar ahoak*, Angel Aldanondorena; *S@rtaldea*, Jon Artolarena; *Esku-titi*, Saioa Aizpurua; *Txintxetillarena*; eta *Blank postcards*, Aitor Artola, Iruñe Gurtubai eta Ibai Vigil-Escalarena. Gainera, Kameratoia lehia-



Ordubeteko iraupena du. HITZA

ketako hiru sarituak: *Biak bat*, Zapatilla film taldearena; *Barrrura begira*, Trastaka taldearena eta, *Nire bista faboritoa*, Kontraplano taldearen ikusteko aukera izango da.

Aipaturiko film labur guztiak ordu bete inguruko saio bakar horretan ikusi ahal izango dira. Emanaldiaren amaieran, berriz, *Esku-titi* filmaren zuzendari izan den Saioa Aizpurua, *Txintxetillaren* hitz egiteko aukera izango dute Zizurkilera bertaraten diren ikusleek.

Iragarki laburrak

LANA

- **Ile apaindegia.** Esperientziadun pertsona behar da lanaldi osoz lan egiteko. Interesa duenak bidali dezala curriculuma.metxa2@yahoo.es helbide elektronikora.
- **Ile apaindegia.** Tolosako ile apaindegi batek esperientziadun pertsona bat behar du, lanaldi osoz lan egiteko. Interesatuak

deitu 625 70 50 59 telefono zenbakira.

- **Emakume euskalduna.** Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da, Zizurkilerako. 07:00etatik 15:00etara egin beharko luke lana. Interesatuak bidali mezua igor.lahidalga@gmail.com helbidera.

ESKAINITZA

- **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei klase partikularrak emango lizkieke. Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasun edo inguruetako herrietan. Interesatuak deitu 669 005 671 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak printzesa!

Mara Olano Sanchez (2 urte).
Inguru guztiak alaitzen dituen udaberriko lore polittinari, muxutxo goxoak loar eta izebaren partetik.

AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Agenda

DEIALDIAK

- **Leitza.** *Orreagako bataila* hitzaldia Angel Rekalde eta Benis Agirrerren eskutik gaur, 20:00etan Aurreran Kultur Aro-aren barruan.
- **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak antolatutako *Euskarak zein politika behar du Tolosan?* mahai ingurua gaur, 19:00etan musika eskolan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Abaltzisketa



TXALBURU ESKOLA, ZURI-URDIN

Realeko Mikel Labaka eta Eñaut Zubikarai futbolariak egon ziren atzo Abaltzisketako Txalburu eskolan. Bisita zela eta, haur guztiak taldeko elastiko elastikoak jarrita joan ziren eskolara. Solasaldia izan zuten, eta lehen hezkuntzako ikasleek galderak egin zizkieten jokalariei. Aurten, jakina denez,

Abaltzisketan ospatuko da Eskola Txikien Festa ekainaren 12an, eta horregatik Txalburu eskolako haurrek festarako atera dituzten elastiko bana oparitu zizkieten Realeko jokalariei. Gaur arratsaldean Pello Añorga ipuina kontalaria izango da eskolan. I. GARCIA

Zu zara aldaketaren giltza
eman botoa

